

2016eko URTARRILAREN 19KO OSOKO BILKURAKO AKTA

Bilkura: Ohikoa
Eguna: 2016/01/19
Ordua: 19.00etan
Deialdia: Lehenengoa

Bilduak:

Olatz Iriarte Argaya ..Alkatea

Ane Garmendia Gorostidi . Zinegotzia

Jokin Garmendia Etxeberria . Zinegotzia

Luis Lopez Garcia Uceda .Zinegotzia

Mikel Telleria Irastorza. Zinegotzia

Idazkaria: Nekane Lopetegi

GAI ZERRENDA

- 1.-2016eko urtarrilaren 9ko bilkurako akta onartzea, hala balegokio
- 2.-2016eko urtarrilaren 11eko berronespena onartzea , hala balegokio
- 3.-2016-2019 legealdirako udaleko lana eta arduren banaketa proposamena onartzea .
- 4.-2016-2019 legealdirako alkate ordea izendatze proposamena onartzea
- 5.-2016-2019eko legealdirako diruzaina izendatze proposamena onartzea
- 6.-2016-2019ko legealdirako osoko bilkuren maiztasuna eta eguna orduaren proposamena onartzea .

1.-2016EKO URTARRILAREN 9KO BILKURAKO AKTA ONARTZEA, HALA BALEGOKIO

Alkateak bilerari hasera eman ondoren 2016-01-09 Bilkurako aktaren izenburuak irakurri eta komentatu dira. Akta dagoen bezala onartutzat eman da.

2.-2016EKO URTARRILAREN 11EKO BERRONESPENA ONARTZEA , HALA BALEGOKIO

Alkateak bilerari hasera eman ondoren 2016-01-11ko berronespena ontzat eman da .

3.-2016-2019 LEGEALDIRAKO UDALEKO LANA ETA ARDUREN BANAKETA PROPOSAMENA ONARTZEA .

Alkateak 2016-2019 legegintzarako komisioren eraketako proposamenaren berri azaldu die zinegotziei, 2568/1986 ,azaroaren 28ko Erret Dekretuaren 38 .b artikuluekin bat eginez .Proposamenaren berri bilerako deiarekin batera jaso izan dute

Arduren banaketa proposamena honakoa da :

HIRIGINTZA: Lehendakaria : MIKEL TELLERIA

Lehendakari ordea : ANE GARMENDIA

Ardurak :

- Arau Subsidiarioen errebisioa eta 2/2006 era egokitzea
- Jasotako lizentzi eskaerak informatu eta jarraitu.
- Baliarraingo bidearen zabalera jarraitzea .
- San Juango bidearen berritze lanen jarraipena.

AZPIEGITURAK: Lehendakaria:JOKIN GARMENDIA

Lehendakari ordea: OLATZ IRIARTE

Ardurak :

- Herri bideen mantenimendua .
- Herriko langilearekin koordinazioa
- Herriko ur hornidura eta saneamendua jarraitzea
- Argiteri publikoa.

URAK: Lehendakaria: JOKIN GARMENDIA

Lehendakari ordea: LUIS LOPEZ

Ardurak:

- Ur kontsortzioko bilerak eta tramiteak jarraitu.
- Iturri publikoak begiratu .

ZABORTEGIA: Lehendakaria: OLATZ IRIARTE

Lehendakari ordea : ANE GARMENDIA

Ardurak :

- Tolosaldeko Mankomunitateko bileretara joatea.
- Kontenedoreak zaintzea.
- Zaborgune ez kontrolatuak zaintzea.

ZERBITZU SOZIALAK: Lehendakaria : ANE GARMENDIA

Lehendakari ordea : LUIS LOPEZ

Ardurak :

- Hirugarren adina.
- Etxez etxeko laguntza.
- Zahar egoitzak.
- Instalazio eta obrak.
- Isolamenduan ez erortzeko jarduerak egitea
- Herritarren beharrak , kasuan kasukoak entzun eta irtenbidea ematen saiatu .
- Gizarte langileraekin bilerak egin .

HEZKUNTZA :.Lehendakaria: ANE GARMENDIA

Lehendakari ordea:OLATZ IRIARTE

Ardurak :

- Baliarraingo haurreskolako ordezkari eta batzarretara joan .
- Eskolaz kanpo haurren arteko harremanak sendotzeko bideak jarri. ikastaroak, udalekuak , ludotekak, kirolak
-

KULTURA:- Lehendakaria : OLATZ IRIARTE

Lehendakari ordea : LUIS LOPEZ

Ardurak :

- Urteko egitasmoak antolatu: haur eta helduentzako :hitzaldi, emanaldi, ikastaro
- Finantziario bideak aurkitu.
- Egitasmoak exekutatu.
- Herri jaietako komisioarekin harremanak izatea.

- Herrian dauden beste elkarteekin koordinatzea.(Harkaitz elkartea, adinekeon elkartea, guraso elkartea , gazte elkartea)
- Euskal Herriko kultura mugimenduekin harremanak izatea (Egunkaria, kilometroak, irratiak...)

NEKAZARITZA: Lehendakaria : JOKIN GARMENDIA

Lehendakari ordea : MIKEL TELLERIA

Ardurak :

- Herriko nekazarien beharrak entzun eta bideratu
- San Isidro eguna gogoratzea
- Nekazal inguruko jarduera berriak indartu eta bertan lanbideak bultzatu

LANDA GARAPENA: Lehendakaria : JOKIN GARMENDIA

Lehendakari ordea : MIKEL TELLERIA

Ardurak :

- Tolomendi, Mendikoi e.a.-ekin harremanak izatea eta bileretara joatea. URTEAN HIRU BILERA
- Landa eremu honetan ahal diren baliabideak jorratzea kolektibo guztientzako

TURISMOA: Lehendakaria : LUIS LOPEZ

Lehendakari ordea : ANE GARMENDIA

Ardurak :

- Tolosaldea tour-ekin harremanetan jarri
- Ibiur-Larraitz ibilaldiaren jarraipenea egitea
- Eta Baliarraingo herriak turismoari eskaini ditzazkiokeen ekarpenak aztertzea

OSASUNA ETA INGURUNEA: Lehendakaria: LUIS LOPEZ

Lehendakari ordea :OLATZ IRIARTE

Ardurak :

- Medikuaren kontsulta herritarrei ziurtatzea
- Ingurugiroaren zaintzea: (Zaborrak, paperak, zakur-kakak, bestelako hondakinak e.a.) eta herrian edozein lekuetan zabortegeak ez sortzea ,eta arauak errespetatzea.

HARREMANAK ETA ORDEZKARITZAK :

- Tolosaldea Garatzen : LUIS LOPEZ ETA ANE GARMENDIA
- Aldundia. :OLATZ IRIARTE
- Jaurlaritza: OLATZ IRIARTE
- Erein.:OLATZ IRIARTE
- Apatta indutrigunea, e.a LUIS LOPEZ ETA ANE GARMENDIA
- Enerio Aralar JOKIN GARMENDIA
- Tolosako hiltegia :JOKIN GARMENDIA
- Uema . OLATZ IRIARTE

Mahaikide guztien aldetik ERABAKI DA :

Alkateak luzatutako proposamena ontzat ematea eta bakoitzak bere ardurak hartzea.

4.-2016-2019 LEGEALDIRAKO ALKATE ORDEA IZENDATZE PROPOSAMENA ONARTZEA

Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Udal Erregimenaren Oinarriei buruzkoaren 21.2 artikulua, eta azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuaren Udal Entitateen Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Erregimena onartzen duenaren 41.3 eta 46.1 artikulua jarraituz, Alkateak Alkateorde proposamena jakinarazi du . Alkate ordea , JOSEBA JOKIN GARMENDIA ETXEBERRIA . Berak kargua onartu egin du. Beraz , legealdi honetako alkate ordea JOSEBA JOKIN GARMENDIA izango da .

5.-2016-2019EKO LEGEALDIRAKO DIRUZAINA IZENDATZE PROPOSAMENA ONARTZEA

Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Udal Erregimenaren Oinarriei buruzkoaren 21.2 artikulua, eta azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuaren Udal Entitateen Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Erregimena onartzen duenaren 41.3 eta 46.1 artikulua jarraituz, Alkateak Diruzaina hurrengoa i proposamena jakinarazi du . Diruzaina, ANE GARMENDIA GOROSTIDI .Berak kargua onartzen du . Beraz, legealdi honetako diruzaina ANE GARMENDIA GOROSTIDI izango da.

6.-2016-2019KO LEGEALDIRAKO OSOKO BILKUREN MAIZTASUNA ETA EGUNA ORDUAREN PROPOSAMENA ONARTZEA .

Alkateak proposatzen du , osoko Bilkuren maiztasuna , hileko hirugarren asteartean eta arratsaldeko 19.00etan izendatzea .

Mahaikideek , alkatearen proposamena jakin ostentzat eman dute eta ados agertu dira.

Bilkurako gai zerrendako gaiak amaitu izan arren , ondorengo bi puntu hauek eztabaidatu eta tratatzea proposatu du alkateak :

.-ILE APAINDEGI LOKALA ERABILTZEA ARAUTUKO DUEN BALDINTZA EKONOMIKO ADMINISTRATIBOARI ONARPENA EMATEA

.-2016 EKITALDIRAKO AURREKONTUA ONARTZEA .

Mahaikideen aldetik adostasuna agertu dute , zintzilik zeuden gaia hauek erabakitzeko .

.-ILE APAINDEGI LOKALA ERABILTZEA ARAUTUKO DUEN BALDINTZA EKONOMIKO ADMINISTRATIBOARI ONARPENA EMATEA

Alkateak baldintza plegua jasoa dela eta aztertu ondoren, aldaketak egin eta jarraian jasotzen den bezala geratu da :

BALIARRAINEN BALIANITZEKO ERAIKINEKO LOKALEAK DAGOEN ILE APAINDEGIAREN KUDEAKETA PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN AGIRIA

AURREKARIAK

Baliarraingo udalak ,Jaurlaritzako Erein egitasmoaren laguntzarekin balio anitzeko eraikina berria exekutatu zuen eta bide batez bertan sortu ziren lokak eratu egin ziren .

Baliarraingo udalaren helburuak , proiektua gauzatzeko hauek izan ziren :

.-Herrian bertan jarduera berriak sortzeko lokalak prestatzea eta sustatzea . era honetara , herrian lan nitxo berriak sortzeko aukera egon zitekeen (masajista, podologoa, bulegoa teknikoak , ile apaindegia)

.-Herrian bertan enplegua sortzeko aukera zegoen , gutxi eta txikiak baziren ere , aukera eskaintzea zen helburua.

.-Eta zuzenean , edo zeharka herritarren zerbitzuak herrian bertan izatea , garraio eta mugikortasuna arazoari irtenbidea emanez .

.-Eta azkenik , herritarrek beren beharrak asetzeko autonomi handiagoa izatea inoren menpe egon gabe .

1. KONTRATUAREN GAIA

Agiri honetan oinarritutako kontratuaren xedea hauxe da: Baliarrainen , balio anitzeko eraikineko lokalean dagoen ile apaindegiaren kudeaketa kontratu administratibo berezia.

Udaletxeak 2011ko azaroaren 14 ko 3/2011 Errege Dekretuak arautzen duen Sektore Publikoko Kontratazio Legeak 201 eta 211 artikuluetan ematen dizkion ahalmenak izango ditu.

2.- IZAERA JURIDIKOA

Kontratuak honako hauek edukiko ditu arau:

- 1.-Baldintza Ekonomiko-Administratiboen agiriak.
- 2.-Tokiko araubidearen inguruan ondasun publikoen aprobetxamenduei begira legerian zehaztutako arau espezifikoak, eta zehatzago adierazteko, apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, Toki Araubidearen legezko Xedapenen Testu Bateratuaren onartzen duena, eta ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua, Tokiko Erakundeen Ondasunen Araudia onartzen duena.
- 3.-Lizitazioa eta kontratua egiterakoan, eta bi horiek garatzen diren bitartean, indarrean egongo diren toki-araubideko nahiz herri-administrazioen kontratuetako legezko eta arauzko xedapenetan jasotako kontratazio-arauak.

Bereziki aplikagarriak edukiko dira, lehen aipatutako araez gain, 2011ko azaroaren 14 ko 3/2011 Errege Dekretuak arautzen duen Sektore Publikoko Kontratazio Legea, eta arauzko xedapen gisa, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Arautegi Orokorra onartzen duena.

- 4.-Administrazio-zuzenbideko gainontzeko arauak.

- 5.- Zuzenbide Pribatuaren arauak Zuzenbide osagarri gisa aplikatu ahal edukiko dira.

3. KONTRATUA ESLEITZEKO IZAPIDEA, PROZEDURA ETA FORMA

Kontratua prozedura ireki bidez esleituko da, izapide arruntaz, 2011ko azaroaren 14 ko 3/2011 Errege Dekretuak arautzen duen Sektore Publikoko Kontratazio Legeko 157-161 artikuluekin bat etorritz.

4. IRAUPENA

Kontratu honek, esleitzen denetik 2 urteko iraunaldia edukiko du (luzagarria beste 2urtera). Luzatzeko aukera edukiko da, bi aldeek hala adosten badute. Nolanahi, kontratua, luzapen eta guzti, ezingo da 4 urtetik gorakoa izan.

Aldereren batek kontratua amaitu nahi izanez gero, beste aldeari adierazi beharko dio, kontratua bera edo luzapenak amaitu baino gutxienez 3 hilabete lehenago.

Epe hori edo luzapenak bukatu ondoren, kontratua automatikoki bukatuko da, eta esleipendunak zerbitzua emateari utziko dio.

5. ESLEIPENA OINARRITUKO DUTEN IRIZPIDEAK

Kontratuaren esleipena egiteko ondorengo baldintzak derrigorrezkoak bete beharrekoak dira :

.-Zerbitzuaren erabiltzailearekin hiztegiko hizkuntza euskara izatea

.-Gutxienez , astean bi egunetan , eta 5 orduz zerbitzua eskaintzea bermatzea .

Kontratuaren esleipena egiteko ondorengo irizpideak kontutan hartuko dira:

- Baliarraingo udalarentzat , aurrekariak kontutan hartuta , enplegua sortzea ,eta herritarrei bertan zerbitzua eskaintzea garrantzizkoagoak direnez, zerbitzuaren kostuaren hobariak zuzenean herritarrei aplikatzea da irizpide nagusia . Horretarako zerbitzuaren balioak eta hobariak azaltzea eskatzen da , eta hauek jendaurrean jartzea.

Irizpidearen balorazioa era honetara egingo da : modalitate bakoitzeko zerbitzuan egiten den hobaria , gutxienez 2 eurokoa 5 punturekin baloratuko da . gutxienez 2 hobari honetatik gorakoa hobariak, euro bakoitzeko 2 punturekin baloratuko dira .

- Zerbitzuaren maiztasuna asteko 2 egunetan eta bost orduz eskaintzeaz gain: astean egun bat gehiago egiteagatik gutxienez 3 ordu, puntu batekin baloratuko da egun bakoitzeko .
- Zerbitzuaren flexibilitatea: Kasu berezietan, ezkontzak, bataioak, bazkariak edo antzeko eginkizunetarako, herrian zerbitzua bermatzea behar den eguna eta orduan eskaintzea garrantzi handikoa denez, 10 punturekin baloratuko da
- Eskainitako Zerbitzua: Ile apaindegi zerbitzuaz gain , bestelako zerbitzuak , makilatzea, depilatzea, eta aholkularitza osoa egitea baloratuko dira ,, gutxienez , 5 punturekin .
- Eta bestelako hobekuntzak .

- Balorazioa egiteko derrigorrezko da , atal honetan azaltzen diren zerbitzuaren berri txosten batetan jasotzea eta eskainiko diren xehetasunak agertzea .txosten honetan azaltzen diren zerbitzuak , udalak eskumena izango gainbegiratzeko betetzen diren ikusteko .

6. KANONA

Eskatzen den gutxieneko kanonik ez dago . Aurrekarietan azaltzen diren arrazoiengatik,kanona udalak jaso orde z zerbitzuaren erabiltzaileak gozatzeko aukera izango du .

7. BEHIN-BEHINEKO BERMEA

Ez da beharrezkoa izango behin behineko bermea jartzea.

8. BEHIN BETIKO BERMEA

Behin behineko adjudikatuak behin betiko berme gisa, organo eskudunaren esku jarri beharko du, ekipamenduaren balioaren %5a , hau da 564,00 euro .

9. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Zuzenbidezko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal edukiko dute kontratazio-jardunbide honetan, baldin eta 2011ko azaroaren 14 ko 3/2011 Errege Dekretuak arautzen duen Sektore Publikoko Kontratazio Legeak 60 artikuluan zehaztutako debekuren batean sartzen ez badira.

Pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal edukiko dute. Ordezkarien bitartez kontratatuz gero, emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten orde z bertako kideren bat azaltzen denean, ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratatze gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.

Gainera, lizitatzailleen jarduera nagusiak zerikusi zuzena izan behar du kontratu honen gaiarekin, eta haien erakundeak kontratua burutzeko behar beste giza baliabide eta baliabide material eduki behar ditu.

10. PROPOSAMENAK, DOKUMENTAZIOA ETA AURKEZTEKO EPEA

Kontratazio honen espedientea, bai eta horrekin batera doan dokumentazioa ere, udaletxeko Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan aurkeztu ahal edukiko da, bulegoa jendearentzat irekita dagoen ordutegian, lizitazioaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Eskaintza aurkezteak adierazten du enpresaburuak Baldintza Tekniko, Juridiko eta Administratiboen Agirian jasotako eduki guztia bere horretan eta baldintzarik gabe onartzen duela, aurkeztutako datu guztiak zehatzak izatearen ardura hartzen duela eta zerbitzua kontratatzekeo beharrezko baldintza bakoitza eta guztiak betetzen dituela.

Proposamenak esandako lekuan eta orduan aurkeztuko dira, iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita hogeita (20) naturalen barruan. Epea igaro ondoren aurkeztutako proposamenik ez da onartuko, nahiz eta epea amaitu aurretik postetxean aurkeztu zirela egiaztatu, non eta postaz bidali zen egunean bertan eskaintza bidali zen data egiaztatzen duen telex edo telegrama ez bazaio helarazten kontratazio-organoari.

Baldin eta epearen azkeneko eguna larunbata, igandea edo jaieguna bada, hurrengo laneguna arte luzatuko da epea.

Lizitatuzaileek bi kartazal aurkeztu behar dituzte itxita (A eta B), eta bakoitzean hau jarri beharko dute: “BALIARRAINEN BALIOANITZEKO ERAIKINEKO LOKALEAK DAGOEN ILE APAINDEGIAREN KUDEAKETA PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO DEIALDIAN PARTE HARTZEKO ESKAINTZAK”.

Kartazal bakoitzean enpresaren izena eta proposamena izenpetzen duenaren izen-abizenak adieraziko dira, noren izenean izenpetzen duen zehaztuz. Bi kartazalak izenpetuta egongo dira.

“A” kartazalaren azpititulua, “KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA” edukiko da. Hona hemen “A” kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:

a) Eskaintzaileak bere izenean badihardu: nortasun agiria. Beste pertsona edo erakunde baten izenean badihardu: nortasun agiria, eta askietsi eta legeztatutako ahalordea.

b) Eskaintzailea pertsona juridikoa bada: eratze edo aldaketa eskritura (merkataritza erregistroan edo elkarteen erregistroan behar bezala inskribatutakoa) eta identifikazio fiskaleko zenbakia. Enpresariak espainiarrak ez badira baina bai Europako Erkidegokoak, nahikoa da lanbide edo merkataritza erregistro bateko inskripzioaren egiaztatzea, dagokion estatuko legediak betekizun hori eskatzen baldin badu.

c) Zinpeko berariazko aitorpena, 2011ko azaroaren 14 ko 3/2011 Errege Dekretuak arautzen duen Sektore Publikoko Kontratazio Legeak 60 artikuluan zehaztutako debekurik ez daukala agertzeko (eredua I. eranskinean).

d) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak kitatuta dauzkala egiaztatzea, dagokien erakundeek egindako ziurtagirien bitartez. Egiaztatze horiek izan ezean, zinpeko aitorpena aurkez daiteke.

e) Enpresarioaren kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa ziurtatuko da 600.000€ edo gehiago arrisku profesionalek eragin dezaketen kalte ordainen aseguru baten bitartez (erantzukizun zibila).

f) Kaudimen teknikoaren ziurtagiriak. Enpresaburuaren kaudimen teknikoa agiri hauetako bat edo batzuk aurkeztuta ziarra daiteke:

a. Azkeneko bost urteetan burututako zerbitzu edo lanen deklarazioa. Zenbatekoa, datak, eremu pribatuan zein administrazioan.

b. Enpresaren titulazio akademikoa eta profesionala eta bereziki kontratua gauzatuko duen pertsonarena.

c. Zerbitzua aurrera eramateko erabiliko duen makinaria, materiala eta ekipo teknikoaren aitorpena.

g) Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu

beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez._kontratuak herritarrekin ahozko zein idatzizko harremana izatea eskatzen duenean, europako erreferentzia markoaren c1 gaitasun maila izatea hobetsiko da, eta, gutxienez, b2 gaitasun maila eskatuko da.esleipena egin aurretik, edozein kasutan, kontratua sinatu aurretik, zerbitzua emango duten pertsonak eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute._Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute._Hizkuntza gaitasuna egiaztatzeke honako bi bideak erabili ahal izango dira: 1. zerbitzua eman behar du(t)en pertsonak/ek eskatutako hizkuntza gaitasuna dauka(te)la ziurtatzen duen agiria aurkeztea edo administrazioak erabakitako froga egitea._

h) Baldin eta enpresari batzuk lizitaziora Aldi Baterako Enpresa Elkarteak eratuta jotzen badute, enpresa bakoitzak jarduteko gaitasuna egiaztatu beharko du, aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera.

i) Atzerriko enpresak badira, kontratuarekin zuzen edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako, Espainiako epaitegi edo auzitegien mende jarriko direla adierazi beharko dute, eta, hala egokituz gero, lizitatzailleek legokiokeen atzerriko jurisdikzioari uko egingo lioketela.

OHARRA: *Eskaintzaileak Kontratisten Erregistroan inskribatuta badaude (urriaren 14ko 22/1986 Errege Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen eta Kontratisten Erregistroa onartzen dituenak araututakoa), erregistroaren arduradunak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatutako kopia aurkeztu ahal edukiko dute a, b, c, eta d ataletan eskatutako agirien ordez.*

a, b, c, eta d ataletan eskatutako dokumentazioa ikaztegiarako Udalak izapidetutako beste kontratazio-espeditente baterako aurkeztu badu, eskaintzak egiteko epea amaitu aurreko urte betean, ez dute berrirori aurkeztu beharrik edukiko, baldin eta agiri horietan aldaketarik ez badago, eta hala dela zinpeko aitortzen bidez adierazi beharko da.

“B” kartazalaren azpititulua “ESLEITZEKO IRIZPIDEAK”. Honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira B kartazalean:

a) Ondorengo ereduaren arabera proposamena:

Lizitatzaillearen datuak:

Izen-abizenak

.....

Helbidea Posta Kodea

.....

Nortasun-agiria

Ordez kariaren datuak (ordezkaririk egonez gero)

Izen-abizenak

.....

Helbidea Posta Kodea

.....

Nortasun-agiria edo IFK (pertsone juridikoa bada):

BALIARRAINEN BALIOANITZEKO ERAIKINEKO LOKALEAK DAGOEN ILE APAINDEGIAREN KUDEAKETA PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO
Baliarraingo Udalak dei egindako prozedura irekiaren berri izan dut eta, zuzenbidezko eta jarduteko gaitasun osoz, hona hemen nire

ADIERAZPENA:

- 1) Ezagutzen dut Administrazio Klausula Zehatzen Agiria, bai eta kontratu hau arautu behar duten gainerako agiriak ere. Horiek horrela, neure gain hartu eta ontzat ematen ditut oso-osorik.
- 2) Hitz ematen dut kontratu horretan sartutako lanak burutuko ditudala agiri horretan adierazitakoarekin bat etorriz.
- 3) Era berean, lan eta zergen gaineko legedi eta araudiak beteko ditut.

.....-(e)n, 200.....-ko-aren-(e)an

SINADURA”

Eta TXOSTENA , IRIZPIDEEN ARABERA BALORATZEKO.

11. PROPOSAMENAK IREKITZEA ETA ESLEIPENA

Kontratazio Mahaia honela osatuko da:

Mahaiburua: Alkatea edo honek bere ordez izendatzen duena

Mahaikideak: Udaleko bi zinegotzi

Idazkaria: Karrerako Funtzionarioa.

Proposamenak aurkezteko epea amaitu eta gero, Kontratazio Mahaiak epe eta modu egokian jasotako dokumentazioa ("A" kartazala) sailkatuko du; eta, dokumentazio horretan akats materialik sumatuz gero, hiru laneguneko epea emango dio lizitatzaileri akatsa zuzen dezan.

Aurkeztutako eskaintzak ("B" kartazala) jendurrean irekiko dira. Gainera Kontratazio Mahaiak aurkeztutako eskaintzei buruz beharrezko jotzen dituen argibideak eska ditzake.

Ondoren, eta egoki diren txosten teknikoak egin eta gero, Kontratazio Mahaiak, organo kontratatzaileari pasako dio esleipen-proposamena.

12. ESLEIPENA ETA FORMALIZAZIOA

Esleipena, hala izanez gero, bi hilabeteko epean egingo da, proposamenak ireki eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Behin behineko esleipena organo eskudunak erabakiko du. Erabakia azaldu egin beharko du, hautagaiei jakinarazi eta aldizkari ofizialean edo organo eskudunaren profilean argitaratu. Aplikagarria izango da 2011ko azaroaren 14 ko 3/2011 Errege Dekretuak arautzen duen Sektore Publikoko Kontratazio Legeko 151 artikuluan jasota datorrena.

Aipaturiko epe horren barruan esleipendunak ogasunarekin eta gizarte segurantzarekin zorrik ez duela ziurtatzen duen dokumentuak, behin betiko bermea eta gutxienez 600.000 €ko erantzukizun zibileko (Lokatiboa, patronala eta esplotaziokoa) poliza aurkeztu beharko du. Lizitazioko iragarki gastuak ere ordaindu beharko ditu. Ziurtagiriak aurkeztu ahal izango dira era elektronikoan, informatikoan edo telematikoan.

Behin behinekoz adjudikatua izan den hautagaia ez denean behin betikoz adjudikatzen, beharrezkoak ez diren baldintzak bete ez dituelako, deialdi berri bat burutu aurretik eta beti ere posible bada, udalak esleitu ahal izango dio eskaintzen sailkapenean hurrengoa gelditu denari. Kasu horretan azken honen adostasuna beharrezkoa izango da eta aurreko paragrafoan aipaturiko ziurtagiriak eta dokumentuak aurkezteko 10 egun izango ditu.

13. KUDEAKETA.ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK.ADMINISTRAZIOAREN AHALMENA.

13. A – ekintza eta ordutegia.

- 1- Baliarraingo Udalak kontratua sinatu eta 10 eguneko epean adjudikatua izan denaren eskutan utziko lokala . Jarduerarekin hasi baino lehen esleipendunak ez du derrigorrezkoa aurretiazko komunikazioa aurkeztea Udaletxean. Kontratua amaitzen denean, Udalak, utzitako eraikinak berreskuratuko ditu. Baita ere, esleipendunak obrak eta instalazioak udal jabetzara pasako dira kontratua amaitzen denean.

13. B – Esleipendunaren eskubideak.

- 1- Kudeaketara lotuta egongo diren ondasunak erabiltzeko eskubidea edukiko du.
- 2- Udalak behartuta kontraturen aldaketa sortzen bada eta honek ekarriko balio esleipendunari kostuaren igoera eta aldi berean irabazien jaitsiera, kudeaketaren oreka ekonomikoa mantentzeko konpentsaziorako eskubidea edukiko du.
- 3- Interes orokorra dela eta administrazioak kudeaketa berreskuratuko balu esleipendunak kalte-ordaina jasotzeko eskubidea edukiko du..
- 4- Zerbitzuaren aldaketa ekarriko ez lukeen ezusteko edo ustekabeko gertaera bat ematen bada eta honek ekartzen balu kudeaketaren desoreka ekonomikoa, esleipendunak prezioa berrikusteko eskubidea edukiko du.
- 5- Nahiz eta pleguan ez etorri kontratu administratibo batek esleipendunari ematen dizkion eskubideak edukiko ditu.
- 6- Lokal berdinean beste motatako zerbitzuak eskaintzeko aukera izatea , adibidez podologia , masajista e.a.

13. C– Esleipendunaren betebeharrak

Esleipendunak honako betebeharrak orokor hauek edukiko ditu:

- 1- Baliarraingo Udalak lagatako eraikin eta ondasunak egoera onean mantendu beharko ditu.
- 2- Ile apaindegirako utzitako lokala garbi mantendu beharko du. Eta ura , zaborra argi indarra eta berogailua gastuak bere gain izango dira .
- 3- Ile apaindegian sortzen diren kalteak konpondu beharko ditu.
- 4- Ezin izango du: kontratuko eskubide eta betebeharrak beste 3.bati alokatu, laga edo eskualdatu.
- 5- Ile apaindegira sartzeko aukera edozeini eman.
- 6- Udaleko langileei kudeaketaren zaintze, ikuskapen, kontu hartzailetzako lanak egiteko erraztasun guztiak eman.
- 7- Ustiapena itxuraz, ahaleginduz eta erabiltzeak nahiak bete beharko ditu. Erabilitako eraikinak osasun aldetik garbi mantendu beharko ditu. Garbiketa egunerokoa izango da.
- 8- Segurtasun eta osasun baldintzak bete beharko ditu.
- 9- Gipuzkoako Lurralde Historikoko Jarduera ekonomikoen gaineko zergan altan egon beharko du zergadun moduan. Gizarte segurantzako eta lan zuzenbideko araudia bete beharko du.

13. D– Administrazioaren ahalmenak.

- 1- 2011ko azaroaren 14 ko 3/2011 Errege Dekretuak arautzen duen Sektore Publikoko Kontratazio Legearen 105.artikuluaren dakarren moduan zerbitzua alda dezake.
- 2- Ustiaketa fiskalizatzea, kontratuari lotuak dauden eraikinak eta dokumentuak ikuskatzea eta behar bezalako ustiapena egin ahal izateko aginduak ematea.
- 3- Esleipendunak burututako arau-hausteei zuzenketa ezarri.
- 4- Kanona eta eratorritako gastuak bide exekutibotik gauzatzea.
- 5- Esleipena berreskuratzea eta ustiapena ezabatzea Administrazio Publikoen kontratazio legean jasota dauden inguruabarrak sortzen direnean

14. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK

2011ko azaroaren 14 ko 3/2011 Errege Dekretuak arautzen duen Sektore Publikoko Kontratazio legearen 237 artikuluetan zehaztutakoak edukiko dira kontratua amaitzeko arrazoiak.

15. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Administrazio-bideari amaiera ematen dioten akordioen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri beharko da, jurisdikzio hori arautzen duen Legeak dioenaren arabera.

Era berean, kontratutik sortzen diren auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren mende egongo dira. Nolanahi ere, bi alderdiek nahi izanez gero, auziak arbitrajearen bitartez konpon daitezke, indarrean dagoen legerian zehaztutakoarekin bat etorritik.

Baliarrainen , 2015ko abenduaren 15ean

I. ERANSKINA

AITORPEN EREDUA

Izena:

Adinez nagusia

NAN zk.:

Helbidea:

Ondorengoaren ordezkotzan:

Izena: IFZ:

Egoitza soziala:

Aitortzen du: berak, nahiz ordezkatzeko duen enpresak, Herri Administrazioarekin kontratatzeko ahalmena duela, jarduteko gaitasun osoa izanik, ez dagoelako 2011ko azaroaren 14 ko 3/2011 Errege Dekretuak arautzen duen Sektore Publikoko Kontratazio legearen 60. artikuluan eta harekin bat datozen guztietan aurreikusitako inolako debekutan sartuta.

(Lekua, eguna eta sinadura)

Mahaikideek , ERABAKI DUTE .

1.-BALDINTZA PLEGUARI HASERA BATEZ ONARPENA EMATEA ETA LIZUTAZIOAREKIN BATERA JENDAURREAN JARTZEA ZORTZI EGUNETAKO EPEAN.ALEGAZIORIK JASOKO BALITZ LIZITAZIO DEIELDIA BERTAN BEHERA GERATUKO DA .

2.-LIZITAZIO DEIALDIA EGITEA ,ETA HOGEI EGUNETAKO EPEA EMATEA INTEERASTUEK PARTE HARTZEKO .

3.-GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALEANA RGITARA EMATEA

.-2016 EKITALDIRAKO AURREKONTUA ONARTZEA .

Herri batzarrean , aurreko legealdiko korporazioa 2016 urteko aurrekontuaren zirriborroa aurkeztu zuen . Legealdi berri honetan ,aurrekontua aztertu eta baloratu ondoren , , ondorengoa aurkeztu da onarpena emateko

GASTUAK

Kapitulua	Izena	Euroak
1	Langileen ordainsariak	84.240,00
2	Ondasun arrunt eta zerbitzuak	47.050,00
3	Gastu finantzieroak	200,00
4	Transferentzi arruntak	38.830,00
6	Inbertsio errealak	47.048,02
7	Kapital transferentziak	2.600,00
8	Aktibo finantzieroak	
9	Pasibo finantzieroak	18.200,00

Guztira 238.168,02

SARRERAK

Kapitulua	Izena	Euroak
1	Zuzeneko zergak	18.300,00
2	Zeharkako zergak	2.000,00
3	Tasak eta beste sarrerak	22.210,00
4	Transferentzi arruntak	186.158,02
5	Ondare sarrerak	8.100,00
7	Kapital transferentziak	1.400
Guztira		238.168,02

TXOSTENA: 2016eko aurrekontua

TXOSTENA

AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKOA

ARAUDI APLIKAGARRIA:

- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
- Diputatuen Kontseiluaren akordioa, 2014ko azaroaren 18koa, Jarraibidea onartzen duena finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan.

AZTERTUTAKO TRAMITEA: 2016 urteko aurrekontua

FORU ARAUAREN 1.2.a) ARTIKULUKO ENTITATEAK (administrazio izaera dutenak)

AZTERTUTAKO TRAMITEA: 2016 urteko aurrekontua

FORU ARAUAREN 1.2.a) ARTIKULUKO ENTITATEAK (administrazio izaera dutenak)

1- ENTITATE ZERRENDA:

BALIARRAINGO UDALA

2- HELBURUAK BETETZEARI BURUZKO EGIAZTAPENA

Aurrekontuen egonkortasuna

Aurrekontuaren espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek 18.200,00 euroko superabita du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera. Ondorio horretarako, ez denez aurreikusten ondorengo doiketarik beharko duen eragiketa adierazgarririk, kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetak sarreren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetak gastuen arteko diferentziarekin parekatu da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta.

2016rako ezarritako helburua defizita zero izatea da.

Hori dela eta, aurrekontuaren espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek bete egiten du aurrekontu egonkortasunaren 2016rako helburua.

ERAGIKETA :

Sarrerak 1-7238.168,02

Gastuak 1-7.....219.968,02

Finantzen iraunkortasuna

2016ko abenduaren 31n, goian zerrendatutako entitateen zor bizia, guztira, 2015an likidatutako sarrera arrunten % 2,15 izango dela aurreikusten da. Kalkulua egiteko, 2015ko abenduaren 31ko zor biziaren zenbatekotik abiatu gara, indarrean ziren eragiketa guztiengatik, abaletatik eratorritako arriskua barne; emaitzari gehitu zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak eta 2016ko aurreikusitakoak, eta kendu zaizkio 2016rako aurreikusitako amortizazioak. Zor biziaren zenbatekoan ez dira sartu UFFFarengatik itzuli gabe gelditzen diren saldoak.

2016rako ezarritako helburua magnitude hori % 80,00 baino handiagoa ez izatea da.

Hori dela eta, aurrekontuaren espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek bete egiten du finantza iraunkortasunaren 2016rako helburua. (5.313,19€ zorra /246.792,90 =%2,15

ERAGIKETA :

2015-12-31ean zorra24.115,19

2016 urtean aurreikusten den amortizazioa..... 18.802,00

2015 urteko aurrelikidazioaren eskubideak 1-5 biak barne ... 246.792,90

Gastuaren araua

2015ko eta 2016ko ekitaldien artean, gastu konputagarriaren bariazioa % 4,72 da.

Aurreko kalkulua egiteko, goian zerrendatutako entitateen datu bateratuak erabili dira, ondoko taulan xehatzen den moduan:

GASTU KONPUTAGARRIAREN BARIAZIOA		
a1	2015eko gastu ez finantzarioa (kap:1etik 7ra)	276.292,06
a2	SEC doiketak[1]	0
a3	2014ko interesak	80,29
a4	Finantzaketa lotua duen gastua 2014an	88.261,50
a=a1+a2-a3-a4	2015eko gastu konputagarria	187.950,27
b1	2015ko gastu ez finantzarioa (kap:1etik 7ra)	219.968,02
b2	SEC doiketak[2]	0
b3	2015ko interesak	200
b4	Finantzaketa lotua duen gastua 2015an	22.640,00
b5	Araudian eta kudeaketan egindako aldaketen eragina	0
b6	Menpeko entitateei ordaindua	300
b=b1+b2-b3-b4-b5	2015ko gastu konputagarria	196.828,02
c=(b/a-1)*100	Gastu konputagarriaren bariazioa (%tan)	4,72%

2016rako ezarritako helburua gastu konputagarriaren bariazioa % 1,80 baino handiagoa ez izatea da.

Hori dela eta, aurrekontuaren espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek ez du betetzen 2016rako gastuaren araua.

3- ONDORIOAK

Aurrekontuaren espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek ez du betetzen 2016rako gastu araua. Beraz, toki entitate hau behartuta legoke, berez, plan ekonomiko finantzarioa onartzera.

Hala ere, kontuan izanda 2016rako ezarritako defizit eta zor helburuak betetzen direla eta aurreko urteko likidazioan aurrezki garbia eta diruzaintza gerakina positiboak izan direla, Jarraibidearen 3. erregelari jarraituz, kontu hartzaile honek berariazko txostena egin du, honako honi erantsi zaiona, udalbatzarrari jakinaraziko zaiona, eta plan ekonomikoa ordezkatzeko duena.

Baliarrainen 2016eko urtarrilaren 19an

Idazkari kontu-hartzailea

Mahaikideek aho batez ERABAKI DUTE:

1.- 2016 urteko aurrekontua onartzea haserako izaerekin .

2.-Hamabost egunean jendaurrean jartzea aldizkari ofizialean argitara emanez , eta jendaurreko epealdian alegaziorik tarteratu ezean , behin betikotzat onartuta ematea , erabaki berririk hartu beharrik gabe .

Hauetaz gain , honako bi puntu hauen berri eman da :

.-HIIRGINTZA BATZORDEA OSATZEKO DEIA EGITEA, LEHEN DAUDEN KIEETAZ GAIN BERRIAK SARTU NAHI BADIRA

.-LUIS LOPEZ-EK JAKINARAZTEN DU , HAURRESKOLAKOEN MANTENIMENDU LANAK EGIN NAHI DITUZTELA ETA MATERILA UDALAK JARTZEN BADU BERAIEN ESKULANA EGINGO DUTELA . MATERIALEN ZERRENDA EGIN ETA UDALARAI AURKEZTEKOTAN GERATU DIRA. ETA JUANJO NAZABALEN ZENBAIT LAN HASI ZITUELA HAURRESKOLAN ETA MESEDEZ BUKATZEKO ESKATU DIOTELA. HAU ERE JUANJO NAZABALI ESATEKO GERATU DIRA.

Eta besterik ezean, 20:25 etan bilera amaitutzat eman zuen alkateak .

Alkateak

Idazkariak